

# BERRIGARA

72. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, uztailak 10

**DURANGO-  
BERGARA-  
BEASAIN**  
ARDATZARI  
LEHENTASUNA  
JAURLARITZAK



**PEDRO  
LUIS**  
ARGAZKILARIAK  
ESTATU  
BATUETAKO  
ESPERIENTZIA  
KONTATZEN  
DIGU



## KIROLAK

OLINPLADA  
HERRIKOLAK,  
UZTAILAREN  
25ERA ARTE  
UMORE GIROAN  
JOKOAN



**UNZETA PARKEA**  
datorren udaran zabalik



**10 urte zure zerbitzura!!**

Horma armairuak eta osagaiak;  
kajoiak, apalak, tableroak...

**Uztailean atek prezio  
ezinhobean!!**

**ARDATZA**  
*brikolaketa*

Mahasterreka 4  
☎ 76 18 93 BERGARA

# Amets Zerbitzuak haundiagotuz



## HERGO karabanen banatzailea

- ✓ Karabanak ,
- ✓ Autokarabanak,
- ✓ mota guztietako erremolkeak saldu eta alokatzen ditugu

✓ Mota guztietako errekanbio eta gehigarriak eta salmenta ondorengo zerbitzua eskaintzen dizkizugu.



Urte osoan zure karabana gordetzen dizugu.

**ZATOZ IKUSTERA**

18tik 25era Arrasateko MAXI-EROSKIn  
egingo den erakusketara

Informazioa:

☎ 78 25 92 / 78 19 50

**AMETS Tailerrak**

Berezano Auzoa • OÑATI

## "ARRISKU-SOLDATA" Programa

Bergarako Udalak, INEM eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Laguntzaz antolatutako programa.

**HELBURUA:** Enpresa txikiak sortzekoasmoa daukaten promotore berriei, euren enpresarako ideia aztertzeo aukera ematea.

**EMATEN DEN LAGUNTZA:** Aurkeztutako enpresa-proiektuen artetik, bi aukeratuko dira. Ondoren, bi talde hauetatik, bakoitzeko pertsona bat kontratatuko da. LANA, beraien enpresa-ideiaren bidegarritasuna aztertzea izango da. Horretarako PRESTAKUNTZA eta AHOLKULARITZA ere eskainiko zaie.

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:**

**AURKEZTU BEHARREKOAK:**

- 18 urtetik gorakoa izatea.
- Langabezian aurkitzea.
- Bergaran erroldatua egotea.

- NAN-aren Fotokopia.
- Langabetu txartelaren fotokopia.
- Errolda-ziurtagiria.
- Enpresa-idearen aurreproiektua.



**IZENEMATEA ETA INFORMAZIOA:**

- BERGARAKO UDALA (Enplegu Dinamizatzailea)
- IZENEMATEKO EPEA 1.992ko uztailaren 30ean amaitzen da.

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurlaritzza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-konseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel

Angel Elkorobereziabar, J. M.

Elxpuru, J. Oregi, A. Urzelai,

Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa,

Mikel Lizarralde, Monika

Belastegi, Mikel Elkorobereziabar,

Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,

I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A.

Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo,

Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi

Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol

Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri

Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### PELOTA ENPRESAK

Pelota enpresen fitxajeak izan dira aste honetan albiste-iturri. Jokin Etxaniz eta Jose Mari Zezeaga gure bi pelotariak, badirudi orainarte bezala jarraituko dutela *Empresas Unidas*en eta beste enpresaren batekin sinatzea sorpresa bat izango litzateke.

Iñaki Aseginolaza enpresari elorriotarrak sortu berri duen *Empresarios de Pelota Vasca* delakoa indar askokin sartu da pelotaren munduan eta hain zuzen ere enpresa hau izan da Jose Mari Zezeaga uberarra *ikutu* duena.



Besteak beste, Arretxe, Errandonea, Vergara II.a eta Alustizaren fitxaketak lortu ondoren, enpresa berri honek azkenaldian hain forma onean dagoen Zezeagarengandik ezetza jaso du.

### Zezeaga eta Etxaniz, Empresas Unidasen

## ITURRI ONETIK

### Gurea gutxitu sikikoen tailerrak Bergaran segiko dute

Nahiz eta hasiera batean Gurea tailerren nagusiek Bergarako tailerrak eta beste inguruko batzuk Arrasaten zentralizatzeko asmoa azaldu zuten, badirudi hemen funtzionatzen jarraituko dutela. Victoriano Gallastegi alkateak argi utzi du Udalak ahalegin guztiak egingo dituela oraingo lokal eragozpenak gainditzeko eta, printzipioz, konponketa eman da Udala eta nagusien artean.

## ESAN DUTE

"Gaur egunean errendimendu gehiago ateratzen zaio txirrindulariari, bai afizionatu zein profesional mailan".

**JESUS ARANZABAL**  
txirrindulari ohia  
EUSKADI IRRATIA

"Ingelesak ez du minik egiten nahiz eta ulertu ez. Euskarak min egiten du, ulertu arren ere. Gauza bat dago argi samar: euskara hizkuntza bat baino askoz gehiago dela".

**EUSEBIO OSA**  
filologoa  
EGUNKARIA

"Euskal Kirol guztiak indarraren eta ez kultura edo heziketaren erakusgarri dira".

**ANDRES OSA**  
"SAKONA"  
Herri Kiroletako kazetaria  
EMAKUNDE



# Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Atsedeen zentrua

## LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

### Zer ikusi, hura ikasi

Zaborrak batzeko dauden tokiak margotu berri dituztenean, gure Udalak orri ponpoxo batzuen bitartez gogora arazi zizkigun noiz eta zein ordutan utzi behar ditugun zaborrok.

Baina, iruditzen zait zeozer gaizki dabilela kale garbitzaileen zerbitzua- ren aldetik, zeren euren poltsak edo- zein egunetan lagatzeko ohitura hartu bait dute, nahiz eta egun horretan zaborra batzerik ez izan.

Kontutan hartzen badugu larunba- tean utzitakoak, igande eta astelehen osoa egoten direla gure etxe aurrean (Bolu 6an), zera bururatzen zait, agian garbiketaz arduratzen direnek, eurek utzitako poltsek gure kaleak janzen dituztela pentsatuko dutela.

Jesus Mari Barrutia

### EAJ-PSE-EEri

Ekainaren 29an ospatu Plenoan, Aranzadi Ikastolak Buesa jauna kargutik kentzeko eskabidea eginaz mozio bat aurkeztu zuen. Horren berri prentsan argitaratu denez, edozein herritarrek izan dezake bozketak eman zuen emaitzen barri; horregatik, eta irakurleak bere eritzia ondo finkatuta izango duelakoan ez gara gai honi

buruz gehiago luzatuko.

Alde edo kontra bere botoa ematen duenak, beti izaten ditu bere arrazoiak eta ohi denez, Udal Gobernuan diren alderdiek bereak eman zituzten. Argitaratuak izan direnez, zenbait ohar erantsi nahi diet han esandakoei:

Hasteko, ikaragarri poztu nau elkar- hizketa eta negoziatorako deiak, izan ere ez baita hori izan Buesa jaunaren ekipoak erakutsi digun bidea. Ziur naiz, Bergarako PSEk izenpetzen duen boto azalpen horretan defendatzen duen jokabide hori Hezkuntza Sailean eman izan ez balitz, ez ginatkeela ibiliko firmak biltzen eta mozioak aurkezten gogoz kontra egin behar izan dugun bezala. Ildo honi jarraiki, esan dezadan erabat ados naukazuela Euskal Legebiltzarrari Gobernu kontrolatzeko ematen diozuen paper horrekin, baina galdetuko nizueke ze jokabide erabil dezakegun hiritarrok Legebiltzarrean dauden alderdiek ez dutenean horrela jokatzeko, edo eta gehiengo duen gobernu baten "nahikarien" aurka ezer egin nahi dugunean. Nere ustez egituraketa demokratiko batek bide asko eskeintzen digu eta ikastolak horietako bat aukeratu besterik ez du egin.

Dena den, arazo guztiak elkarriketa eta negoziatioaren bidez konpontzen direnez, gogora arazi nahi diet EAJ-PSE-EE alderdietako zinegotzietei, aurtengo apirilaren 10ean Ikastolako lehendakariak

Begarako Udalean ordezkariak duten alderdi guztiei, Iruñako kongresuko ondorio batzuekin batera, eskutitz bat zuzendu ziela, bilera bat eskatuz eta hitzez hitz esaten zen bezala: "eztabaidarako gure eskeintza bezala" eta "bide batez gaur egun bizitzen ari garen egoera larriaren inguruan elkar- hizketa izateko". Ez EAJk, ez PSEk, ez EEk ez digute oraindik erantzunik eman.

Hiru hilabete pasatu diren arren, elkarriketarako dei harek bere egu- nerokotasuna galdu ez duenez, berriro azpimarratu beharko dugu gure bo- rondate hori eta Udal Gobernu osat- zen dutenek borondate bera azaldu dutenez, ordua eta tokia jartzea beste- rik ez zaigu geratzen.

Iñazio Arregi Gordoa  
(Aranzadi Ikastolako  
Zuzendari-gerentea)

### Barkamenak

Joan zen asteko Berrigarako por- tadan agertzen ziren hiru argazkiak KIÑU argazki dendak ateratakoak zi- ren. Inprentako akats bategatik firma azaldu ez zenez, gure barkamenak KI- ÑUri.

Berrigara

Tiira ba!



Josu Okina

**zinea**



**EL DOCTOR**

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30  
eta 22.15



**DOBLE IMPACTO**

Larunbata: 22.30.  
Astelehena: 19.30.

**deiak**

• **Beira eta kristal lanketa ikastaroa.** Uztailaren 22a izena emateko azken eguna Udaleko Enplegu Dinamizatzailearen bulegoan.

**irteerak**

• **Mendia Bizirik** antolatuta, uztailaren 10, 11 eta 12rako obserbazio irteera **Zaragoza** eta **Nafarroako** ipar muga ingurura. Bertako naturguneak osotasunean aztertzeko obserbazio kanpamendua.

**jaiak**

• **San Kristobal** auzoko jaiak. Igandera arte hainbat ekitaldi, tarte-an dantzaldiak, kotxeen bedeinkapena eta jolasak gaztetxoentzat.

• **San Martzial Txiki** eguna igandean. Musika Eskolako irakasle eta ikasleen festa eguna. 11etan egingo dute igoera eta jeitsiera arratsaldeko 8etan.

**ogia**

• **Igandea 12:** Mizpildi.

**farmaziak**

- **Larunbata 11:** Puy.
- **Igandea 12:** Puy.
- **Astelehena 13:** Guallar.
- **Asteartea 14:** Estella.
- **Asteazkena 15:** Mozos.
- **Osteguna 16:** Puy / Azkoaga.
- **Ostirala 17:** Camacho / Morales.

**aukeran**



▼ **Tapia eta Leturia** trikitilariak dantzaldia eskeiniko dute larunbatean, gaueko 11etan, San Kristobal auzoko jaietan. Bertara hurbiltzen direnek musikaz gozatu eta, bide batez, jai-giroan, gau aparta igarotzeko aukera izango dute.

**ANTIA**

HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxlategi, Tfnoa: 76 15 09

**ELEKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

**MAKAILO**

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

# ARGAZKI ETA POSTALEN II. LEHIAKETA

Oporrak bertan dauzkagula eta, aurtan ere iaz egin genuen bezala ARGAZKI ETA POSTALEN LEHIAKETA antolatzea bururatu zaigu. Beraz, badakizu, bidali eizkiguzu nahiz

Osintxuko jaietan edota Usoako terrazan, nahiz Nepalera edota Benidormera egindako bidaiak zoragarrietan ateratako ARGAZKI eta POSTALAK. Hartutakoen artean gehien gustatzen zaigun argazki eta postalari sari bikain bana emango diegu.

Argazkiak ZURI-BELTZekoak zein KOLOREtakoak izan daitezke eta ORIGINALITASUNA eta KALITATEA, biak hartuko ditugu kontutan. Postaletan, oster, HIZKUNTZA ZUZENTASUNA eta ORIGINALITASUNA baloratuko ditugu, batez ere.

Anima zaitez, ondo pasau oporretan eta ez zaitez ahaztu argazkiak eta postalak IRAILAREN 8a (asteartea) baino lehen BERRIGARAKO erredakziora (Errotalde Jauregia, 20.570. Bergara) bidaltzen. Ondoko sarietako bat zurea izan daiteke!!.

## S A R I A K

Argazkia-Bideoa



**KIÑU**  
Barrenkale 35  
Tfnoa: 76 58 05

GRUPO  
**Image  
Center**

**KIÑUk emandako argazki-makina bikaina, argazki onenarentzat.**



**TXURINGO JATETXEAK emandako bi pertsonarentzako afari ederra, postal onenarentzat.**

**□ Ikastaroa**

Udalak beira eta kristal lanketa ikastaroa antolatu du irailetik urtarrilera bitartean 18 urtetik gorako langabe-tuentzat. Era guztietako beira lanketak eta bereziki aluminio bidez egiten direnak ikasiko dira eta izena ematea Udaletxeko Enplegu Dinamizatzailearen bulegoan egin behar da zabalik uztailearen 22ra arte goizeko 9etatik ordubaterata.

**□ Zaharrak**

Diputazioak zaharrek, oporrek, Eibar edota Tolosako zaharren egoitzetan igarotzeko plangintza jarri berri du martxan. Interesaturiko familiek Udaleko Gizarte Laguntzailearen bulegoan jaso dezakete informazioa astelehen, asteazken edota ostiraletan.

## Durango-Bergara-Beasain ardatza 12 urte barru prest egongo da

Josu Bergarak, Garraio eta Herrilan sailburuaK, asteartean jakitera eman zuenez, Durango-Bergara-Beasain komunikazio ardatza izango da Jaurlaritzak eta hiru diputazioek 1.993tik 2.004ra bitartean burutuko duten Errepide Plan Orokorren arlo nagusietako bat.

Gainera, egin nahi den trazaketa berriaren arabera, Durangotik Elorriora eta Beasaindik Zumarragara autobideak izango dira. Zumarraga eta Bergara artean ere errepide berria egin nahi da eta Deskargan tunel bat izango litzateke. Bergaratik Arrasateraino doan bideak, berriz, Urbina-Maltzaga autobidearekin bat egingo du eta, azkenik, Kanpazarren beste tunel bat egin beharko da Arrasate eta Elorrio lotzeko.

**Urbina-Maltzaga**

Euskal Autonomi Elkarteko Errepide Plan Orokorrean agertzen den autobide bakarra dugu Urbina eta Maltzagaren artekoa. Donostiarako lotura eta, bide batez, Debaldeak duen azpiegitura larria sendotu nahi da autobia honekin eta

horretarako Bilbo-Behobia autopistaren zati haundi bat (%60a inguru) aprobetxatuko da. 1.998rako amaitzea espero da eta, proiektuan aurrikusita dagoenez, 2.003tik aurrera kontrol publikoa izango duen Urbina-Maltzagan sartuko litzateke Bilbo-Behobia autopista.

## San Kristobal jaiak

Pinua jasoz, atzo eman zitzaien hasiera San Kristobal auzoko jaiak. Gaur berriz, Meza Nagusiaren ondoren, kotxeen ohizko bedeinkapena izan da eta gauean, 10.30etatik goizalderarte, Luhartz taldearekin dantzaldia iragarrita dago. Bihar larunbata, berriz, Tapia eta Leturiak alaiturik, dantzaldia izango da gaueko 11tan eta igandean, uztaileak 12, Meza Nagusia 12etan, ondoren kotxeen bedeinkapena, jubilatuentzako *luncha* 12.30etan eta jaiak amaiera emateko, kukañak ordubaterata eta Elorza anaien trikiti emanaldia.



**Pepelu**  
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**PRiMi**

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90  
San Antonion Tfnoa: 76 21 08  
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

**LXUKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

□ **Mendia Bizirik**

Mendia Bizirikek uztailaren 10, 11 eta 12rako obserbazio kanpamendua antolatu du Zaragoza eta Nafarroako ipar muga inguruan bertako naturguneak osotasunean ezagutzeko. Pol-Poleko bulegoan informazio gehiago jaso daiteke.

□ **Eskertza**

Jai Batzordeak San Martzialeko Jaiak posible egin zuten txistulari, dultzainari, trikitilari, txaranga, itzain, bertsolari, dantzari eta gainontzeko jendeari eskerrak eman nahi die.



**Samartzial euritsuua**

Azken urteotako, eta beharbada inoiz izan den Samartzialik euritsuena bizi genuen bergararrok joan den igandean. Euri zaparrada etengabeak ez zuen jendea atzera bota eta giroa, aurten ere, bikaina izan genuen.

Goizeko lehen orduetatik hasi zen jendea helitzen ermitaren inguruko zelai lokaztura. Kuadrila gehienek toldoa jarri behar izan zieten igandearako bereziki gertatutako mahaiei, eguraldia ez baitzen txantxetako.

Goizean dantzak izan baziren ere, arratsaldean,

zelaiaren egoera txarragatik, txinga zein sokatira txapelketak bertan behera uztea erabaki zen. Jeitsiera ere ordubete aurreratu zen eta 8ak aldera San Martzialen bildutako milaka bergararrek jeitsierari ekin zioten, balkoietan zegoen jendeari oraindik ur gehiago eskatuz.

Bestalde, igande honetan Musika Eskolako ikasle eta irakasleek Samartzial Txiki eguna ospatuko dute. Ekitaldiak, goizeko 10.30etako kalejira eta ondorengo igoerarekin hasiko dira.


□ **Martxa**

**Gernika Batzordeak** antolatutako **Askatasuna eta Bakearen Txirrindulari Martxa** astelehenean, hilak 13, Bergarara helduko da 13.45etan. Espoioian egingo da ongi-etorria eta ondoren, zuhaitz bat landatuko da Monzonen etxean, mural bat margotu eta bertsolarien agurra eta herri bazkaria izango da Plazan. Bazkarirako izena eman nahi dutenek Arrano, Korta-Zar edota Pol-Polen egin dezakete, langabetuek 600 eta gainontzekoek 1.000 pta. ordainduz.

**Berrigarak** bertako publizitateaz arduratu eta zenbait kazetaritza lan egingo lituzkeen pertsona bat hartuko luke. Interesatuak Berrigarara (76 03 97) dei dezakete argibide gehiago jasotzeko.

**Begarako Atletismoari** buruzko informazioa edota argazkiak dituztenei **BERRIGARA**-rekin harremanetan jartzeko eskatzen diegu (76 03 97), horren historia argitaratzeko asmoa dugu ta.

ARRANO  
  
 Taberna  
 Kruz Gallastegi BERGARA

 u m e l a g a  
**JATETXEA**  
 San Antonio 5 BERGARA  
 Tfnoa: 76 20 21

*Tximak*  
*Ileapaindegia*

Fraikozurl 3, Tfnoa: 76 56 69

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

**Kailash**  
**Zentro Esoterikoa**

Parasikologi Zientzien Instituto  
 Hispano Amerikarrean diplomatutako profesionalak.

•†arot-a •Hipnosia •Erresonantzia  
 Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)





## 41 milioiko etekinak

Urriaren 6an Bergaran ospatutako *Kilometroak 91*ko balantze ekonomikoa egin ondoren, 41 milioi pta.ko etekinak izan dira antolatzaileek jakitera eman dutenez. Inazio Arregi Aranzadi Ikastolako zuzendariak oso positibotzat jo zituen emaitza hauek asteazkenean, beren prebisioa 47 milioi ateratzea zela azpimarratu bazuen ere.

Bildutakoaren % 60a Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolek eramango dute eta gainontzeko % 40a Ikastolen Federakundeak jasoko du

(erdia Federakunde berarentzat eta beste erdia nonbaitera bideratuko duena). Bergaran gertzen dena honelaxe banatuko da: Aranzadi-erentzat % 80a eta Mariaren Lagundiak kobratu du jadanik zegokion % 20a.

*Kilometroaken* inguruan 90 miloi inguru mugitu dira, gastoak 49 miloi eta beste 41 milioiak etekinak izanik. Aranzadik jasoko duen dirua Hezkuntza Erreformatarako beharrezkoak ziren obrak ordaintzera bideratuko dela jakin arazi zigun zuzendariak.

# Txinpartak

✓ **Kultur Etxeko liburutegia** uztailean goizez bakarrik egongo da zabalik 8etatik ordubatetara.

✓ **Eguzki** taldearekin erromeria izango da Elgetan larunbatean, hilak 11, gaueko 10etan hasita eta goizeko ordubiak arte.

✓ **Pol-Pol Mendizale Taldeak** Arno mendira irteera antolatu du hilaren 26rako. Interesatuek izena eman dezakete elkartean bertan arratsaldeko 7etatik 9etara.

✓ **Euskadiko Mendiko Txirrindulari Saria** jokatu da larunbatean Elgetan 1. go eta 2. mailako afizionatuentzat. Irteera arratsaldeko 3 terdietan eta amaiera 19.15ak aldera izatea espero da.

✓ **Senideakek** enkartelada bat burutu zuen atzo arratsaldean Plazan euskal presoen giza eskubideak errespetatzea aldarrikatuz.

✓ **Aitor Zabaleta** gidariak Espainiako Mendi Txapelketan lider jarraitzen du, igandean, Ciudad Realen jokatuako karreraren bigarren postua lortu ondoren.

✓ **San Martinetako danborradan** parte hartzeko izena emateko epea uztailearen 17ra arte egongo da zabalik Kultur Etxean goizeko 9etatik ordubatetara.

## BERGARA PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia Gabinetea)

• **Zerbitzuak:** Aspaldiko urteetan:

- Kontsulta, diagnostikoa eta tratamendua (haur, gaztetxo eta helduentzat)
- Eskola atzerapenatarako laguntzak, ikastetxeentzako zerbitzuak.

• **Tratamendua:** Psikoterapia (urduritasuna, depresioak, stress-a, harreman-arazoak, enuresia (gauetan txiza egitea), psikomotrizitatea, logopedia (hizkuntzazko zailtasunak, ahotsezkoa, afasia, artikulazio arazoak, toteltasuna,...)

Herri-Lagunak (Aranzadi ikastolako patiotik sarrera)  
Tfnoa: 76 14 80. Koordlnatzailea: Jose Luis Irazabal



## TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta  
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

# San Kristobal

## Gidarien eguna eta beste ohikundeak

**S**an Kristobal Angiozarrera doan bidean dago. Ermitak erdiaroko itxurak dauzka: jauretxean, sarrerako atean, barrengo zurezko zutabeen, eta abar. Bere AndreMariaren Haurrak behatza sartzen dio hegazti baten mokoari.

XVI. gizaldian eztabaidak izan ziren Bergarako eta Elgetako udalen artean ermitari buruz, noren muga barrenean zegoen aldarrikatuz. Behin Bergarakoak auzitan sartu zuen Elgetako alkate jauna, aginte makilarekin sartu omen zela eta Bergarako mugetan, modu horretan ermitan sartzerakoan.

San Kristobalen jaia uztailaren 10ean ospatzen da. Txofer asko joaten da ermita ingurura eta, meza nagusiaren on-

doren, kotxeak bedein-katzen dira bere aurreko enparantza txikitik, limosna bat emanaz. Bihamonean beste meza bat ematen zen auzoko hildakoen alde.

Belarriko gaixotasu-netatik sendatzeko asmotan joaten zen ermitara. San Kristobalen krisailutik olio hartu, mindutako belarria igurtzi, ordainetan olio berria ipini eta kandela bat laga. Landareak ere askotan eskeintzen dira; bere enparantzan dauden intxaurra eta gatzaina ere deboziozko landareen eskeintzak dira.

San Kristobalen, miazaren lean eta urrian, mezak ematen ziren, "Denboralekoak" izenarekin ezagutuak. Meza ondoren, ermitako atetik konjuro bat errezatzen zen. Lehenago, ekaitzen



bat zetorrean, Angiozarko kanpaiak jo ondoren, apaizen bat jeisten zen San Kristobalera konjuroa errezatzera, eta auzotarrak garia ematen zieten horregatik.

Santuaren jaietan Letani bat errezatzen zen Berezibar-erdikoa ingurutik hasi eta ermitaraino:

lehenbizi gizona joaten ziren, ondoren danbordun jaun bat, eta gero emakumezkoak. San Kristobalen "Letani eguna" oso zaharra da, 1.583. urtean ere egin zen.

*Imanol Sorondo*

**YAZKI**  
**UME GAZTE**  
**Neska eta Mutil**  
 Irizar 3      Ibargarai 8  
 Tfnoa: 76 16 54      Tfnoa: 76 54 73

**BOLINTXO**  
*Kisola egiteko  
 behar den guztia*  
 Ibargarai 10,  
 Tfnoa: 76 38 32

**IZADI**  
**Santiveri** PILI GISASOLA  
 Osasun eta Dietetikan  
 espezializatutako zentrua  
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**LAZKANO**  
**OINETAKOAK**  
 Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
 BERGARA

**ederju**  
**ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK**  
 Barrenkale 23      Tfnoa: 76 29 65      BERGARA

Pedro Luis

**Ormazabal Argazki,** fotografia dendan ekin zen orain dela 15 urte inguru. Hura utzi eta Arrasaten jarri zuen beste argazki denda bat. Azken bi urteetan, ordea, egitasmo berri batean buru-belarri ari da: Estatu Batuetako Idahon eman ditu ia bi urte osoak eta argazkilaritzan punta-puntakoa den teknika berri batekin ari da lanean. Ameriketatik etorri-berri da.

**- Nolatan bururatu zitzaizun hemengo lan guztiak utzi eta Estatu Batuetara joatea?**


- Orain arte murgilduta ibili naizen lan guztiak zikloak edota etapak, nolabait esateko, izan dira neretzat. Hau da, hamar bat urte lan batean eman ondoren, aldatzea gustatzen zait. *Argazkin* urte batzuk eman nituen eta oso gustora gainera, baina hura utzi eta beste denda bat jarri nuen Arrasaten. Orain, beste lan batzuk dauzkat eskuartean: orain dela hiru bat urte asmatu zen teknika berri batekin hain zuzen ere. Inguru hauetan ez da gehiegi erabiltzen eta aintzindari izan nahi dut.

**- Esplikatu zuzer datzan teknika berri hori.**

- Gaietik esango dizut, ez dut pista gehiegi inori eman nahi eta: funtsean fotografia eta pintura artistikoaren arteko argazkia lortzea izango litzateke, emultsio bereziak nahastuz lortzen den erretratua alegia. Idahon esperimentatu dut eta oso emaitza onekin gainera. Erakutsitako gehienak saldu bait ditut. Bertako argazkilarien kritikak oso onak izan dira eta nere lanarekiko interesa azaldu dute.

Pedro Luis Ormazabal

## Estatu Baueetan argazkilaritza teknika berriak lantzen



antzeko biztanle kopurua izango du.

**- Eta nondik ateratzen dute bizimodua?**

- Batipat nekazaritza-tik eta zerbitzuetatik. Boisetik orduerdira, esaterako, lehen mailako eski pista ugari aurki ditzakezu, turismoa oso indartsua da. Bestalde, munduko patata produktore haundienetakoa da Idaho eta ez dago ia industriarik, eta dagoena punta-puntako elektronika enpresetan biltzen da; konstrukzio arloan ere, goi mailako enpresak dituzte.

**- Euskadirekin harremanak gero eta estuagoak omen dira gainera...**

- Bai, lehendakariak orain dela urte batzuk egindako bisitaldiaren ondoren, gero eta sendoagoak omen dira.

Han bizi diren 3.000 euskaldun inguruk, harreman oso onak dituzte Idahoko agintariekin: Boiseko alkateak, berak, Idaho Euskal Herriko zortzigarren probintzia zela esan zidan behin...

**- Eta Estatu Batuetara joateko aukera nola sortu zitzaizun?**

- Idahon izandako lagun bati Ameriketara joateko asmotan nembilela esan nion behin, eta berak Idahoko hiriburua den Boiserara joateko gomendatu zidan, hango euskaldunekin harremanak zituelako.

**- Nolakoa da Idaho?**

- Oso trankila eta ederra. Bi milioi lagun inguru bizi dira iberiar penintsularen antzeko zabalerako lurraldean. Boise hiriburua, Donostiaren

**iRUDI**

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65

**AGOITZ**


**Tapizdenda**

San Lorenzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialeak**

Billegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegara Auzoa



## Unzeta Ruiz de La Prada

*Parkearen egitasmoari buruzko xehetasunak*

Unzeta Ruiz de la Prada parkea, Udaletxeko berriztapenarekin batera, legealdi honetako Udal Gobernuaren egitasmorik garrantzitsuena, joan zen asteko Osoko Bilkuran onartu zen EAJ, EE eta PSOEren aldeko eta HB eta EAren aurkako botuekin. 100 milioitako aurrekontua duen proiektuaren xehetasunak Xabier Gallastegi Hirigintza Batzorde buruak eta Joseba Aizpurua Udal Nekazal Teknikoak eman dituzte ezagutzera eta orrialde hauetan azaltzen dizkizuegu.

Xabier Gallastegi eta Joseba Aizpurua ostegunean emandako prentsaurrekoan, proiektuaren onarpenerako azken hilabeteetan izandako gora-beheri eskaini zizkieten lehendabiziko hitzak.

Xabier Gallastegi, Hirigintza Batzorde buruak, proiektuaren inguruan

sortutako eztabaidari buruz, bi gauza argi utzi nahi zituela adierazi zuen. Alde batetik oposizioaren jokaera kritikatu zuen: "Aurreko legealdian, Ramon Garitano arkitektoari proiektua egiteko eskatu zitzaionean ez zioten kuestionatu ez Erantzaren komisaldegien kokalekua ez eta ere

ekologia arazoak". Hala-ber, argi utzi nahi izan zuen, iazko irailean egindako Plenoan Garitano arkitektoak burututako proiektua hain azkar onartzearen arrazoiak: "egitasmoa hain aguro onartu bazen, ez zen izan oposizioari eta talde ekologistei erakutsi nahi ez genielako, Jaurlari-

tzaren diru laguntza jaso ahal izateko lehenbailehen onartu beharra geneukalako". adierazi zuen.

Gallastegik, iazko irailetik joan zen atera arte, egitasmoa onartu zen arte hain zuzen ere, oposizioarekin eta talde ekologistekin harremanetan izan direla adierazi zuen eta ahal izan duten neurrian hauek emandako oharrak kontutan hartu direla gaineratu zuen.

Joseba Aizpurua Udal Nekazal Teknikariak, bere aldetik, Unzeta Ruiz de la Prada lorategiko zuhaitz eta landare gehienak errespetatu eta zainduko zirela ziurtatu zuen.

### Bergarako bosgarren parke publikoa

Unzeta Ruiz de la Prada zuhaitzia Bergaran ditugun Errekalde, Errotalde eta Usondokoekin eta une honetan eraikitzen ari diren Irizar Etxeko lorategiarekin batera Bergaran edukiko dugun bosgarren parke publikoa izango da.

Jakina denez, gaur egun disfrutatzen ditugun hiru parkeak, gauez itxi egiten dira eta Unzetakoa eraikitzen denean, ilunabarra heltzearekin itxi egingo da. Egun guztian zehar zabalik aurkituko den bakarra, Irizar Etxeko lorategia izango dela esan dute Udal agintariak.



**LIZAR**  
Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**JOSE  
LUIS  
eta  
MIKEL**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

**Mujika**  
Tantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

**Datorren udarako prest**

Udal Hirigintza Batzorde buruak jakitera emandakoaren arabera, Unzeta Ruiz de la Prada parkea eraikitzeko eta Udaletxearen berriztapenerako lanen adjudikazioak irailean egingo dira. Hori horrela izanik, eta lanak burutzeko zortzi hilabeteko epea egongo dela kontutan hartuta, datorren urteko udarako parkea zabalik egongo zela ziurtatu zuen Gallasgik.

**Hamar mila metro karratuko parkea**

Unzeta Ruiz de la Prada parkeak 10.000 metro karratuko zabalera izango du bere lehen fasean. Aurrerago egingo den bigarrenean, Luzio Arregiren txaletaren aurrealdeari eta Solana ondoko parkinari hartutako beste 1.000 metro karratu inguruko lursaila gehituko zaio.

Bost sarrera-irteera izango ditu: Ertzaintzaren komisaldegia aldekoa (Unzeta jauregia), Ruiz de la Prada Etxe aldekoa, bi hauen artean Espaloi kalera emango duena, Harrizuri kalera emango duena eta Solanako etxera emango duena.

Ertzaintzaren komisaldegia parke barruan egingo bada ere, hesi

batez inguratuko da. Ingurune hori berritzen 25 bat milioi gastatuko dira.

Espaloiko azera eta alde honetako parkearen hesia, bestalde, berriztu egingo dira eta gasaren eta uraren tuberia berriak jarriko dira. Hortarako 10 milioi pasatxo erabiliko dira.

**Zuhaitz gehienak dauden moduan**

Bergarako talde ekologisten kezka nagusietako bat lorategi barruko zuhaitzak errespetatzea izan da eta onartu berri den egitasmoan azaltzen denaren arabera, ia igartuan dauden bost zuhaitz eta beste lau fruta-arbola


kenduko dira. Ertzaintzaren komisaldegia inguruan dauden beste lau ere atera eta beste lekua batean sartuko dira. Berlandaketatarako milioi t'erdi inguru bideratuko dira. Horrez gain, 54 zuhaitz berri landatuko dira.

Lorategiaren behealdean, 12 metroko diametroa izango duen estanke bat egingo da eta 500 metro inguruko luzerako bi-

dea, lorategi osoan zehar.

Aipatu dezagun azkenik, Ruiz de la Prada eta Unzeta etxeen artean, parke barruan, *«Ensenantza»* aldera, 70 metroko luzera izango duen metalezko jarlekua egingo dela eta horrez gain, beste bost eserleku ere jarriko direla, normalean kalean eta beste parke batzuetan jartzen diren t'akoak.

**Errotalde, Usondo, Errekalde eta Irizar parke publikoekin batera, Bergarako bosgarrena izango dugu Unzeta Ruiz de la Prada**



Espaloi aldean hiru sarrera izango dira Ertzaintzaren komisaldegikoa kontutan hartuta. Azera eta alde honetako parkearen hesia konpondu egingo dira, gasaren eta uraren tuberia berriak jarriko direlarik.

**Siaska**

Dena zure haurrarentzako


Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

**Kiroldegiko**  
Taberna



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

## Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



### ETXE AUNDI

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI

# FS

oto istema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## ZAPELAITZ

### Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera


San Lorentzo 25, BERGARA

## Kabutzia

### ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

## San Kristobal egunean ibilgailua bedeinkatzeko ohiturarik bai?



Sergio González  
31 urte, langilea

Ez daukat ezer berezirik egiteko ohiturarik, ez kotxea bedeinkatu ezta lorak jarri ere.




Rosana Gutierrez  
36 urte, irakaslea

Ez, ez dut ezer berezirik egiten. Lehen, aitak urtero bedeinkatzen zuen kotxea baina nik ez.



Adela Aguado  
28 urte, etxeakoandrea

Ez dut ezer egiten eta gainera sekula ez dut izan ohiturarik.



Iñaki Aranzabal  
38 urte, taxista

Nik ez dut kotxea bedeinkatzen, baina nere lankide batzuk bai. Noizbehinka lorak jartzen dizkiot.



### IRAKASLE ESKOLA

E s k o r i a t z a  
G i p u z k o a

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:  
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epaia  
zabalik dagoela.


#### ESPEZIALITATEAK:

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

#### BIGARREN DIPLOMATURAK:

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 79 04 40  
Ordutegia: 9-13




## Egin itxi nabi dute

Lagun batek esan zidalako, bestela ez nintzen enteratuko etxebizitza bat erosteko orain dirulaguntzak dau dela eta ez dakit zein telefonotara deituz gero informazio osoa jaso daitekeela. Ez izena emateko asmorik nuelako, baina ertzain sartzeko plazak atera zirenik ere ez nintzen enteratu. Osakidetzak Lezan duen Ospitaleko gerentea izateko aukeraz ezin izan naiz baliatu, ezta Bizkaiko Aldundiak enpresak sortzeko garai onena hauxe dela jakin ere, eta euskobonoak neuk ez eta ingurukoek erosi dituzte... Zergatik? *Egin irakurtzearren.*

170 milioi pta. inguru omen dira orain arte *Egin*-ek Instituzioengandik, publizitate gisa, jaso ez dituenak. Ez noa esatera milioi horiek nireak direnik, inoiz ez bait dut hainbeste diru imajinatu ere egin, baina neure zergak, alboan kafea hartzerakoan *Deia* edo *El Diario Vasco* irakurtzen duen jendeak bezain zintzo ordaindu ditudanez... ba Instituzioengandik horiek jasotzen duten beste informazio jaso nahi nuke.

Gauza bat hamabost urtean kalean dagoen egunkari bat itxi nahi izatea da, eta oso gaizki dago; baina horretarako milaka euskalduni besteei ematen zaien aukerak ukatzeak ondo erakusten du agintarien demokrazia noraino den sasidekrazia.

**Beñardo Kortabarría**



## Tourra etxian

Joan dira, baiña ez zeresanik emon barik. Bizikleta zaliak disfrutau dogu eta eztiak aguantau dabe. Abertzale-euskalzaliak gustora geratu ga eta eztiak asko tripakomifekin.

Ikurriña alde guztietan ikusi da, euskeraz dexente entzun da eta "Hau ez da España, ezta Frantzia ere" mundu osora zabaldu da, nahi dabenak entzun. Dana primeran joan da (suakin egindako kokolokerixa batzuk kenduta) eta hain ondo joan bada "betiko endredadoriei" esker izan da.

Agintzen daben jende zuzen eta legezkuan esku laga izan balitz, "El Tour salió de la Bella Easo, San Sebastián, en el norte de España" entzun bihako zan. Erderaz, jakina. Eta zelako polita dan Elorza jaunak hain ederki zuzentzen daben ziudade polita eta bakeoso hori.

Madrilgo emisora bat sutan zeuan hurrengo egunian no hay derechoka. Euskera, ikurriña, chantaje terrorista... España berbia ei zan behin be entzun presentaziño ikuskizunian. Eta danon artian pagatzen daben TVE-2tik euskera tragau biharra. Jesus! Van mal las cosas en ese entrañable pedazo de territorio nacional.

Batzuen hasarria beste batzuen poza. Irabaziko al dau Indurainek tourra eta gero ixilik egongo al da igezkuak esan barik. Bestela eztose barkatuko bandera rojigualdoan batuta ez ibiltzia, Luc Leblanc eta bestiak berriakin dabitzen moduan. Kuelluan eta manga puntetan eztoz nahikua. Irabazik, bestela igual "por ultraje a la bandera" juzgauko habe eta.

**Juan Martín Elexpuru**

## BOLINTXO Okindegia

San Juan Tfnoa: 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4, EIBAR  
Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE

## MINER Ardo onak, ardoa jakina

Billegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

## IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27



## LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## Artista ezezagun bat

Orain artean ezezaguna izan den artista bat dakarzkizuegu orrialde honetan. **Alejandro Azkaratek** beti izan du margotu eta eskulanak egiteko zaletasuna. Orain, jubilatuta, denbora gehiago du txikitik piztu ziztaion afizioari ekiteko eta benetan lan bikainak burutzen dituela: koadro heraldikoak, errotak, oesteko gurdiak etab. luze bat. Argazkian, amaitu berri duen Agerreko garaixearen kopia batekin agertzen da. Azken detailea ere landu du eta ea noiz animatzen zaigun bere lan guztiak jendeaurrean erakustera...



## Gora San Fermin!!

Udalekuetako haur eta begiraleei esker Bergaran ere ondo errotutako jaiak dugu azken urteotan **San Fermin eguna**. Pasa den asteartean ere, San Fermin egunean han izan genituen txuriz jantzita eta zapi gorriarekin kaleetan zehar. Txupinazioa, alkate txikien agurra... eta gezurrezko zezen baten aurrean ere gustora egin zuten korrikan. Iruñean baino hobeto..

# ANDUZU

ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko boteilatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

# JULIA Frutadenda

Matxiategi 4 Behea BERGARA

# Josefina

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, Solariuma, perikura, estetika.

Espaloia 4, Tfnoa: 76 35 38





□ **Zilarrezko ezkontzak**

**Arans-Gui Gorren Eskolaren 25. urteurrena zela eta, irakasle eta ikasle izandakoek ospakizun eguna izan zuten orain gutxi Donostian. Bertan, Jose Maria Setien Donostiako Gotzaiak emandako meza entzun ondoren, bazkaria egin zuten Anoetako Kiroldegian. Guztira, Donostia, Tolosa eta Bergarako eskolan ibilitako 700 bat pertsona bildu ziren; bazkalostean mimo aktuzioak izan ziren eta, ondoren, parrandarekin jarraitzeko, gazteenak ondoko diskoteka batera hurbildu ziren dantzan egiteko. Aspaldiko lagunekin igarotako egun ahaztezina...**


□ **Anoetara**

**Bergarako Construcciones Mecanicas J.F.** enpresak Donostiako Anoeta estadiorako metaliko guztiak (sabaia ezik) egiten dihardu. Oraingoz, guztira, 6.200 m. barandilla, ate metalikoak, zerrailak eta kanpotik doazen eskilarak ere egiteko eskatu diete eta hor ari dira, gogor lanean, Realak laister erabiliko duen estadioak itxura onena izan dezan...



**Zertan dihardute ba?**

**EMILIO VINUESA**



25 urte dituen eta Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioan, Informazio Zientzietan lizentziatutako bergarar hau *Pacharan Zoco* enpresako Harreman Publikoetarako arduradun izendatu berri dute.

**JUAN KORTABARRIA**



Imprecin lan egiten duen 33 urteko bergarar hau Udaletxeko HBko zinegotzi berria dugu joan den asteko Plenoan Korporazioa utzi zuen Aitor Aginegalderekin ordez.

**GURIDI** Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**MARKIEGI** Automobilak

**Automobil eta kamioien karrozeria**

Leizeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)  
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



## Umore giroan

### Buruau dixari erantzun gogorra

Eibartar buruau di estrapelista bat Felixen kontura barre egin naitan zebillen. Neurritik kanpora be pasau zan, eta naiko faltau zeban gure Felix. Au, baiña, etzan ixildu eta esan zetsan zorrotz:

- Ixildu ari! Ire moduko buruau dixak, San Juan bisperan, puxigiakin urtetzen juek Aluntamentu azpitik!

### Mototxenian

Kaporala ta bere lagun jua dira Mototxenera. Edan dabez bi bermut eta jua dira kalera ordaindu barik. Mototxek, ikusitxa orduan be sartu zetzela zirixa, diño:

- Ez ba! Gaur pagau

biarko juek!

Ordubi terdietan ba datoz barriz bi lagunok eta eskatzen dabe bi txikito.

Mototxek:

- Lenengotik lengua pagau!

Kaporalak:

- Ara ba, konfundidu ei aiz. Guk, oiñ, etxakau dirurik. Len bai.

\* \* \*

### Bai Ermurutz

Egun baten, jua da "Balbotin" ugezabangana. Auxe eskabidiau eitxen zetsan: jorna alatzateko. Ugezabak orduan:

- Baiña, ez ago konforme irabzaten duanakin? ALFAtik urrengo geu gaitxuk barren!

Balbotinek zoli-zoli:

- Bai, Ermurutz!

### Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Hiribildu-agiria

Hiribildu-agiria edo toki bati emandako bereztasun erreale berronespena gertakizun egiaztatua da Erdi Aroan zehar Euskalerrri osoan.

Hiribildu-agiria hiri berriak bete behar duen arautegia baino ez da, eta bertan sortzaileak emandako Bereztasun guztiak aipatzen dira, beti ere Foru orokor baten arabera dagoelarik.

Egiaztapen honek data izateak, ez du esan nahi hiri sortzea, dagoen herri bati Bereztasuna ematea baino ez da izaten.

Deba Ibarrean jendea herrietan bizi zelako frogak XI. mendeko dokumentuetan agertzen dira, 1050. urtean Santxo jaunak Aritzetako San Miguel Monastegiko lur batzuk "de la Peña"ko San Juan Monastegiari eman zizkionean. Aritzetako monastegi hau, antza denez, gaurko Bergarako San Antonio basiliza dagoen tokian zegoen.

Eta 1.200.ean, Gaztelako Alfontso VII.ak Gipuzkoako lurretan sartu eta hartu zitueanean, dokumentuetan aipa-

tzen diren erregeak hartutako gazteluen artean Deba eta Urolaren isurkien arteko mugan Bergarako Elosukoa ere agertzen da.

Geroago, eta bandoen arteko borroken gogortasuna dela eta, Enrike IV.ak botaezaziko du (1.457). Gaztelu hau, Elosualdean, San Andres eleizaren ondoan, gaurko egunean jabeduna den lurraldean agion zitekeela uste da.

Begarako hiria sortu aurretik, eliza biren inguruan elkartuta, bata bestearen ondoan, Deba ibaiak bakarrik banatzen zituela, biztanle gune bi zeuden: Ariznoako San Pedro eta Oxirondoko Santa Marina. Gune biek osatuko dute Bergarako hiri berria eta Oxirondoko Elizatea.

1.268.ean Gaztelako Alfontso X.ak Bergara sortu zuenean, "Villanueva de Vergara", Ariznoako lurretan sortu zuen eta Hiribildu-agiria Gasteizko Foruan oinarriturik eman zion.

### Amaia Basterretxea

## EDEL

### tapizdenda

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

## Iturkintz Berri

### INSTALAZIOAK:

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasa

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

Tfnoa:  
76 28 04

## IBARGUREN PENTSUAK


**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

# BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



## Josu Goenaga

Josu Goenaga izan dugu aste honetan BONOFOTOko sariaren irabazlea. 10.000 pzta eman diogu berak jarritako erantzuna, argazkian agertzen ziren txirrindulariak **Philippe Louviot, J.F. Bernard** eta **Laurent Fignon** zirela, zuzena zelako. Bergarako helmugan lehena, berriz, Louviot izan genuen eta hala jarri zuen Josuk. ZORIONAK!!


**Zein da baserri honen izena?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Aste honetako  
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**



### POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

### DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

## TABERNA ZAHARRA

### *Jatetxea*

Bazkariak  
eta  
afariak

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

• Frigorifiko kamioi autonomoa behar da, astero Bergaratik Ponferradara gehienez ere 1.000 kiloko kargarekin bidaia egiteko  
Tfnoa: 76 47 45  
Criadero Vascongado de Codornices

### LAN ESKEINTZA

• 1. mailako karneta duen txoferra hartuko litzateke bere kontura lan egiten duena eta esperintziaduna.  
Tfnoa: 76 47 45  
Criadero Vascongado de Codornices

• Frigorifiko kamioi autonomoa behar da, astero Bergaratik Zaragoza 1.000 eta 2.000 kilo arteko pisuarekin bi bidai egiteko.  
Bidaia aseguruak.  
Tfnoa: 76 47 45  
Criadero Vascongado de Codornices

# LILURA

## Edertze institutua

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.  
Bakoitzarena banan-banan zaindu beharra dago.  
Utzi ezazu benetako espezialisten eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

BERGARA

# Uztailaren 25era arte jokoan Bergarako Olinpiada Herrikoiak

Astelehenean hasi ziren jokatzeko gure herri- an III. Olinpiada Herri- koiak. Bergarako Olin- piada Batzordeak antola- tutako joku hauetan, uz- tailaren 25era arte 16 tal- dek hartuko dute parte.

Kirol guztiak (water- polo, herri kirolak, gin- kana... etab luze bat) tal- deka banaturik daude eta tokiak ere hainbat erabi- liko dira; Institutoa, Ikas- tolak eta San Martin Ika- setxea (saskibaloia eta boleibola), Plaza (mahai jokuak, kaskara jokua, sokatira, zaku karrerak eta txingak) eta igerile- kuak eta Zaharren Egoi- tza.

## Taldekako jokoak

Talde bakoitzak toka- tzen zaion beste taldea-



ren kontra kirol guztietan jokatu beharko du. Dato- rren astean, esaterako, mahai jokuak (final laur- denak, astelehena), dua- tloia (asteartean), toka, rana eta boloak (jubilat- etan, asteazkena), saski- baloi eta boleiboleko semifinalak ostegunean eta herri kirolen semifi-

nalak ostiralean jokatu- ko dira.

Amaiera modura, uz- tailaren 25ean bazkari herrikoia izango da San Martzialen. Bertan, herri- ko kirolen finalak eta so- ka soltea egiteaz gain, bazkalostean, bertso eta play-back lehiaketak egingo dira.

## Jesus Izagirre, futbol taldeko entrenatzaile berria

Jesus Izagirre 55 urteko entrenatzaile- ak Bergarako futbol taldea entrenatuko du datorren denboraldi- an, asteartean urtebe- teko kontratua sinatu ondoren. Izagirre Gasteizen bizi da eta, besteak beste, Miran- des, Durango, Bara- kaldo eta Mondragon taldeak entrenatu ditu aurretik. Iaz, *Mondra* entrenatzen ari zela, Izagirrek dimititu egin zuen denboraldi erdian. Bestalde, presiden- teak, Clementeren (Urola) fitxaketa, Gomez de Seguraren jarraipena eta Luce- ñok ere segitzeko dituen aukerak azpimarratu zuen.



## Eskaladan garaile

Larunbatean jokatutako Euskadiko Kirol Eskalada- ren Txapelketarako baliogarria zen proban, Josune Bereziartu emakumezkoetan eta Gotzon Gardea- zabal eta Patxi Arozena gizonetzkoetan nagusitu ziren. Guztira 25 partaide izan ziren (4 emakumez- koetan eta 21 gizonetzkoetan), eta eguraldiagatik proba dexente atzeratu behar izan zen. Herriko partaidetzari dagokionez, Beatriz Jimenez bigarren postuarekin konformatu behar izan zen eta, gizo- nezkoetan, Josean Mulas eta Aitor Payros 7. eta 8. sailkatu ziren. Horrez gain, partaideen artean zozketatutako EXPOa bisitatzeko bi pertsonentzako bidaia Gorka Hernaez gazteiztarrak irabazi zuen.

ileapaindegia  
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



**KORTA-ZAR**

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa; 76 20 62



**Katekesian eta lanean: 1.965 eta 1.940ko erretratuak**

**G**arai eta gai desberdineko bi erretratu dakarkizuegu oraingoan.

Ezkerreko erretratuan, 1.965eko argazki batean, Acción Católica-ko taldetxo bat ageri zaigu. Orain Gaztetxea dagoen gainean katekesia ematen zuten. Bertan ageri direnak hauek dira, ezkerretik eskumara: Izaskun Jimeno, Sorkunde Agirregabiria, Amaia Garmendia, Luisita Gallastegi (andereñoa, katekesia ematen ziena), Mila Azpeitia, Amaia Muguruza, Marisa Albeniz, Arantxa Unamuno eta Purita Arrondo. Informazioa eta argazkia Amaia Garmendiak eman digu.

Alboko erretratua, berriz, 1.940koa da eta bertan Pako eta Juanita Moreno anai-arrebak agertzen dira. Garai hartan beren amak arraindegia zuen eta erretratua etxez-etxe enkarguak banatzen iritetzen zirenetako batean aterata dago. Erretratua Juanita Morenoren da.

*Estepan Plazaola*

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

**DENA 100**

pzta.tan

Ireki berria

SIMON ARRIETA 3an

**ETXEBIZITZA**

**Etxebizitza salgai Arzamendi 19an.** 3 gela, saloia, sukaldea eta bi bainugela. Amueblatua eta gasaren instalazioa eginda. ☎ 76 10 10.

**Pisua salgai Bidekuru-tzetan.** (5.000.000) ☎ 76 09 36.

**Pisua salgai Donostian** (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

**BI apartamentu alokatuko** nituzke Gandiako hondartzan eta Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

**Apartamentua alokatuko** nuke garaje eta guzti Jakan. ☎ 76 43 98.

**Artekalen pisua salgai** ☎ 76 55 63. Gaeuz.

**Garajea salgai** Espalorian. ☎ 76 01 95.

**Garajea salgai.** ☎ 76 23 38.

**Pisua salgai Koldo** Eleizalden. ☎ 76 58 23.

**Pisua salgai:** bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

**Santa Marina** inguruko **garaje** bat **Zapelaitz** inguruko beste **garaje** baten ordez trukatu nuke. ☎ 76 58 61.

**SALDU-EROSI**

**Musika** jotzeko **bateria** salgai. ☎ 76 53 55.

**Mendiko bizikletaren XT.92** freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gaeuz).

**Ecler Mac 2** markako musika nahasketarako mahaia salgai (2 lerro eta 4 plater). ☎ 76 38 61.

**Dantzaldietan, bodetan** e.a. etan ibiltzen den taldeak **teklista** bat behar du. ☎ 73 01 17.

**2 CV aren erroberak** salgai (oso merke). ☎ 76 15 07 (Aniotz).

**Minox CT** argazkikamara, flash eta guzti, salgai. Berri-berria. ☎ 76 52 31.

**PENTAX** objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

**Bideo kamararako** hiru ordutako iraupeneko **bateria** salgai. ☎ 76 42 96.

**PCrako joku** ugari salgai. Oso merke!! ☎ 76 17 85 (Asier).

**6-10 urteko** haur batentzat **mendiko bizikleta** salgai (BH marka). ☎ 76 56 97.

**Elektragailuak** (garbigailua, hozgailua...) **erosiko** nituzke ☎ 76 17 85.

**LANA**

**Abuztu hasieran** Granada noa **bizikletan** 10 egunetarako. Nahi al duzu nerekin etorri? ☎ 76 44 46 (arratsaldetan Xabier).

**Edozein motatako** propaganda etxez-etxe banatuko genuke. ☎ 76 38 13.

**Taberna alokatzen da** ☎ 76 53 73.

**Arratsaldetan gaixoak** eta **edadetuak** zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

**Bajua** jotzen ikasteko **klaseak** hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

**Emakumezko batek haurrak** zaindu eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Etxeko lanak** egin eta **umeak** zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

**Neska batek etxeko lanak** egin eta **umeak** zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

**Mutil batek** kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. **marratzuko** lituzke ☎ 76 25 59.

**Edozein motatako lanak** makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

**Hildakoak**

- Victor Alberdi Garaileku*  
uztailaren 6an, 76 urte
- Francisca Arizabaleta Zabaleta*  
uztailaren 6an, 75 urte
- Eduardo Tena Murillo*  
uztailaren 8an, 84 urte
- Maria Agirrebalzategi Galdos*  
uztailaren 9an, 80 urte

**Jaiotakoak**

- Itxaso Alberdi Otaño*  
uztailaren 1ean

**AUTOPULLMANS ARABA**


**Autobusak**  
**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara!!**  
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

**GESTORIA EGUREN**

*M. Pilar Eguren Diez*  
Kolejlatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea,  
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45

# JAKINA

**BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK**




ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA



## ASEGURU ARTEKARIAK

- |                              |                         |
|------------------------------|-------------------------|
| ✓ Etxeko arrisku askotarakoa | ✓ Pentsioetarako planak |
| ✓ Garraioak                  | ✓ Istripuak             |
| ✓ Autoak                     | ✓ Subsidioa             |
| ✓ Komunitateak               | ✓ Komertzioak           |
| ✓ Bulegoak                   | ✓ e.a.                  |

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA